

25/2013 FORU DEKREUAREN ALDAKETA. FORU DEKREU HORREN BIDEZ NAFARROAKO FORUZAINGOKO KIDEEK ZERBITZUAREN ARRAZOIAK DIRELA-ETA ARROPA ERABILI ETA EROSTEAGATIK KALTE-ORDAINA JASOTZEKO BALDINTZAK, ETA BESTE NEURRI BATZUK ARAUTZEN DIRA.	
Tramitea:	ARAUAK IDATZI AURREKO KONTSULTAK
Bitartekoa:	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA
Araua:	39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak prestatzeko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko, erregelamendu proiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratu beharko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkartzarrik handiena duten erakundeek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu asmo diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Aurrekoa betez, hala nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek 2019ko otsailaren 19 (e)ra arte galde-sorta honetan planteatutako alderdien gaineko iritziak igor ditzakete helbide elektronikoa honetara: serejupe@navarra.es.

1. KONPONDU ASMO DIREN ARAZOAK

- Gaur egun zenbait unitatek eta kidek zerbitzua ematen dute arauzko uniformerik gabe (horiek ez daude sartuta 25/2013 Foru Dekretuan). Hartara, foru dekretuan sartu gabekoak hemen babestu nahi dira.
- Gaur egun aurreikusitako diru-kopuruak desfasatuta daude, 25/2013 Foru Dekretua onetsi zenetik urte batzuk iragan baitira.

2. ARAUA ONESTEA BEHARREZKOA ETA EGOKIA DEN

- Aplikazio-esparrua Foruzaingoaren errealitate operatibora egokitzea aukera aldakorra da, gastu publikoa benetan gauzatutako zerbitzura egokitu nahi duena.
- Zenbatekoak prezioen igoeraren arabera eguneratzea egokia da, egokitu gabe zenbait urte pasatu baitira.

3. ARAUAREN HELBURUAK

- Arropa erabili eta eskuratzeagatiko kalte-ordainaren aplikazio-esparrua eguneratzea, eta arauzko uniformerik gabe benetan ari diren unitateetara eta pertsonengana zabaltzea.
- Kalte-ordainen zenbatekoak eguneratzea, 25/2013 Foru Dekretuaren hasierako helburura egokituz.

4. AUKERAN DAUDEN BESTE KONPONBIDE BATZUK

Apirilaren 17ko 25/2013 Foru Dekretuaren bidez arautu ziren Nafarroako Foruzaingoko kideek zerbitzuaren arrazoiak direla-eta arropa erabili eta erosteagatik kalte-ordaina jasotzeko baldintzak, eta beste neurri batzuk. Foru dekretu horren azken xedapenetako lehenean kontseilari eskudunari baimena ematen zaio foru dekretuan aurreikusitako gehieneko zenbatekoak eguneratzeko, baina ez aplikazio-esparrua zabaltzeko. Beraz, foru dekretua aldatzea beharrezkoa da.